



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Kurt Rosenwinkel jazz-gitarrista legendarioak eta Jean-Paul Brodbeck pianista ospetsuak Jazz, Blues eta Swing estilo ezberdinez janzten dute Chopin handiaren musika

- Jorge Rossy (bateria) eta Lukas Traxlek (kontrabaxua) osatzen dute datorren asteartean Bilbaína Jazz Klubak eta Arriaga Antzokiak sustatutako «BJC Arriagan» zikloaren baitan agertuko den laukotea.

Bilbo, 2022ko azaroaren 24a.- Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako «BJC Arriagan» zikloak beste musika-hitzordu bat eskainiko du datorren astean, azaroaren 29an, asteartean, 19:30etik aurrera.

Kurt Rosenwinkel jazzeko gitarra-jole ospetsuak eta **Jean-Paul Brodbeck** suitzar piano-jole txalotuak indarrak batu dituzte lankidetzan historiko batean, ***The Chopin Project*** aurkezteko, Chopinen musika jazz-laukoterako egokitu eta berrinterpretatzeko proiektua. Hauek izango dituzte lagun: Jorge Rossy baterian eta Lukas Traxel baxuan. The Chopin Project proiektuak Chopinen musika erromantiko atemporalak esploratu eta jazzaren inprobisazioan utzi dituen marka ezabaezinak arakatzeko ditu.

Geure buruari galde geniezaioke ea Chopinen garai erromantikoko konposizio dotoreak egokiak diren jazz-laukote elektriko moderno batek berrinterpreta ditzan. Brodbeckek eta taldekideek, preludio, estudio, nokturno eta bals klasikoak moldaketa originalen interpretazio liluragarrien bidez, zalantza guztiak argitzen dituzte. Erritmo erromantikoa swingaren ausardiaren bidez adierazten dira, melodia folkloriko bihurriak blues bihurtzen dira, eta post-boparen energia transzendentek Chopinen lerro melodiko luze klotuen dotoretasun fina eraldatzen du. Rosenwinkel lerro nagusiak bandaren gainean hegaldatu, eta Chopinen melodia ezagunak eraldatzen dituzte. Horren ondorioz, erabat berria den zerbait sortzen da.

The Chopin Project lanak zehaztasun trebearekin erakusten du zein freskagarria izan daitekeen mendebaldeko kanon klasikoko musika dokumentu bizi gisa tratatzea eta jakin-minaz berrinterpretatzeko askatasuna uztea. Heartcore Records diskoetxeak kaleratutako diskoaren emaitza ikaragarriak bere benetako dimentsioa hartzen du zuzenean, asteartean Arriaga Antzokira hurbiltzen den publikoak ikusi ahal izango duen moduan.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro (beherapenekin)

- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus